

*MONDRAGON Korporazioaren 2016ko Kongresuan onartu zen autoexigentzia, konpromisoa eta erantzukizunaren kultura jarri behar zela kooperatibisten artean. Hilabete honetan berriro gatoz Arizmendiarrietaren ideiak ERANTZUKIZUNA eta KONPROMISUAri buruz eta nola pertsona guztiok eta bereziki kooperatibistok barruratuta eduki behar ditugun.*

***Batek ezin du bestearen mahaian betiko eseri inoiz ezer eman gabe. Bakoitzak gizarteari probetxu ateratzen dio, baina berak ere gizarteari zerbait eman beharko dio, zerbitzuren bat egin beharko dio. p118***

*Arizmendiarrietak beste esaldi hauek ere utzi zizkigun erantzukizunaz eta konpromisoaz:*

*Aurrean errebindikazioaren bat eduki beharrak bultzatutako pentsaerara ohituta dauden langile askorentzat tentazio erreza izan daiteke prozesu ekonomikoan zuzenean inplikatzeko betebeharra saihestea, garapen oro eta, are gehiago, garapen kooperatiboa ere saihestuta. p124*

*Orain arte herriari egin diogun ekarpena esperientzia kooperatibo hau izan bada, hemendik aurrera garapen komunitarioa eskaini beharko genioke, baina ardurazko eta koherentziaz. p126*

*Aurrera egitea ez da gehiago eskuratzea, gehiago izatea, egitea eta ematea baizik. p146*

*Badaezpada ere, ez dezagun oinarri ekonomikorik gabeko emantzipazioetan sinetsi; kooperatibismoa langilearen benetako askapena izatea nahi badugu, onartu beharra daukagu esku hartze eta erantzukizun ekonomikoa dagokigula, gure entitateak gure oinarri propioen gainean sendotzeko. p501*

*Ez dago uztarik ereiten ez bada, eta ez da ezer produzitzen berez eta ezer egin gabe. Ez dago ondo beste batzuei eskatzea guk geuk ematen ez dakiguna emateko, guk geuk egiten ez dakiguna egiteko. p113*